

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2335

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleak prestatu eta hobetzeko jardueren erakunde-eskaintza argitaratzen da eta Garatu 2013-2014 Planaren barruan arautu egiten dira, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera horiek egiteko deialdia.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari dagokio unibertsitateaz kanpoko irakasleak prestatzeko agintzea eta irakasle moduan prestatzeko duten eskubidea eta betebeharra jagotea, lanbide-premien arabera behar bezala eta behar besteko kalitateaz presta daitezen, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren III. tituluko III. kapituluan jasotzen denez.

Horregatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak irakasleak prestatzeko plana egin du urtero. Plan horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egin ditu, unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-gaitasuna hobetzearren, eta, zehatz esateko, hezkuntza-sistema hobetzearren; eta, beste alde batetik, bideak irekitzen ditu irakasleek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren araberrako prestakuntza etengabea emateko.

Prestakuntza-jarduerak aurrera eramateko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak erakunde batzuen laguntza izango du, hain zuzen ere Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Plana garatzeko proiektuak aurkezteko deialdian diru-laguntza jaso dutenena. Bestela, Hezkuntza Sailak barne baliabideekin antolatu ditzake ikastaroak.

Hori dela eta, hau:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Garatu 2013-14 Planean prestatu eta hobetzeko eskaintzen diren jardueren zerrenda argitaratzea.

2.– Prozedura bat ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko mailletako irakasleak prestatu eta hobetzeko ikastaroak egiteko baldintzak zehazteko, ikastaro-eskabideak egiteko eta parte-hartzaileak hautatzeko. Hori gorabehera, kontuan hartuko dira Lanbide Heziketa eta Etengabeko Prestakuntzako sailburuordearen berezko eginkizunak, Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa sailaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 16. artikuluan zehazten direnak.

2. artikulua.– Prestakuntza-jardueren zerrenda eta tipologia.

Agindu honen I. eranskinean jasotzen da 2013-2014 ikasturteko prestakuntza-jardueren zerrenda; irakasleek eskura dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian. Prestakuntza-jarduerak deskripzio-fitxa bana izango dute, eta Hezkuntza Saileko web orritik lortu ahal izango da edo, bestela, Garatu planean matrikulatzeko aplikazio informatikoan. Fitxa guztiek informazio hau dute:

Izena, kodea, ikastaroa ematen duen erakunde arduraduna, nori emango duen, ordu-kopurua, hasiera-eguna eta amaiera-eguna, hizkuntza, aldiak, non emango den eta ordutegia.

Jarduera bakoitza eskatzen jartzen diren baldintzak eta salbuespenak, ikastaroan onartzeko nahitaezkoak izango direnak.

Programa xehatua: helburuak, edukiak eta metodologia.

3. artikulua.– Hartzaileak.

1.– Prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute irakasleek, baldin eta lanean ari badira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak baimendutako unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan; era berean, parte hartu ahal izango dute Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan laguntzako Zentroetako langileek (berritzeguneetakoek), Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundekoek, Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietakoek, Itsuen Baliabidetegietakoek, Irale ikastegietakoek, hizkuntza-eskola ofizialetakoek eta Hezkuntza Ikuskaritzakoek.

2.– Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzako Zentroetako (berritzeguneetako), Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko, Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietako, Itsuen Baliabidetegietak, Irale ikastegietako eta hizkuntza-eskola ofizialetako langileen kasuan, Garatu 2013-2014 jarduerak egiteko eskabideak bakarrik onartuko dira baldin eta toki hutsik geratzen bada gainerako eskabideei hautaketa-irizpideak aplikatu eta gero. Salbuespentzat joko da jarduerak zerbitzu horietako langileei beren beregi zuzentzen zaizkienean edo jardueran zerbitzu horiei gordetako tokiak daudenean.

3.– Lanbide Heziketako irakasleek parte hartzeko, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren arduratuko da berariazko lanbide-heziketako irakasleak hobetzeko eta prestatzeko planak egiteaz, beti ere irailaren 233/2010 Dekretuko 16.1.g) artikulua ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa eta Kultura sailaren egitura organikoa ezarri zen). Nolanahi ere, Lanbide Heziketako irakasleek prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute, baldin eta artikulua honetako 1. eta 2. puntuetan aipatzen den esleipen-prozesua egin ostean plazarik libre geratzen bada.

4.– Era berean, hauek ere parte hartu ahal izango dute:

a) Hezkuntza Bereziko lan-legepeko langileek: hezkuntza-premia bereziei buruzko jardueretan eta jarduera horietarako jartzen diren baldintzetan.

b) Ikastetxe publiko edo baimendutako ikastetxe pribatuetan Haur Hezkuntzan (zerotik hiru urtera) lan egiten duten hezitzaileak: euren zuzendutako jardueretan. Jardueretan euren zehaztutako da zein baldintzatan parte hartuko duten.

4. artikulua.– Eskatzeko prozedura.

1.– Jarduera horien matrikula doakoa izango da.

2.– Matrikula on line egin beharko da, eta salbuespen modura paperean, eskabide-eredu bakarra erabiliz (II. eranskina).

Garatu 2013-2014 planeko prestakuntza-jarduerak on line eskatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko aplikazio bat erabili beharko da irakasgunea atarian. Atari horretara irakasle guztiek sartu ahal dira, hala ikastetxe publikoetakoak nola itunpekoak; izan ere, sartzerik ez badute, irakasleek euren sortu ahal izango dute erabiltzailea eta sarbide-gakoa. Eskaera bete ondoren inprimatu eta frogagiri gisa balioko du, eta ez da beharrezkoa izango Hezkuntzako Lurralde-ordezkaritzetan sarrera ofiziala ematea.

Eskabidea paperean aurkeztuz gero, eskatzaileek eskabidea (III: eranskina) beteta eta sinatuta entregatu beharko dute Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako informazio-ataletan edo Hezkuntza Berriztatzeko ataletan, nork bere lanpostuari dagokionean.

San Prudencio, 18	Vitoria-Gasteiz	Araba
Gran Vía, 85 zk., 1. solaiura	Bilbao	Bizkaia
Andía, 13	Donostia	Gipuzkoa

Zuzenean zerbitzuan ere entregatu ahal izango da (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao; Andia 13, 20003 Donostia; Ramiro de Maeztu 10 behe, 01008 Vitoria-Gasteiz).

30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduan ere bidali ahal izango dira, artikuluko horretan adierazitako tokietara.

Soilik jatorrizko eskabideak onartu dira, behar bezala beteta eta sinatuta.

3.– Eskatzaileak ikastetxeko zuzendaritzako baimena izan beharko du (IV. eranskina) baldin eta jarduera osoak edo haien zati bat irakastorduetan egin behar baditu edo eskola-egutegitik liberatu behar bazaio prestakuntza-jarduerak egiteko.

4.– Ikastetxeko zuzendaritzak irakasle bati proposatu ahal izango dio prestakuntza-jarduera jakin bat egiteko (V. eranskina), eta, ondorioz, eskatzaileak eskatzaileak lortu ahal izango ditu III. eranskineko baremoaren C) atalean ezartzen diren bost puntuak.

5.– Jarduera batzuetan parte hartzeko, baldintza jakin batzuk betetzea eska daiteke; halakoetan, ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da betetzen direla (atzerriko hizkuntzako tituluaren ziurtagiria).

6.– 4.3, 4.4 eta 4.5 artikuluetan adierazitako egoeraren batean adierazitako egoeraren batean egonez gero, eskatzaileak hori jasota utzi beharko du eskabideak horretarako duen atalean (II. eranskina). Era berean, lanpostua zein lurraldetakoa izan, lurralde horretarako ordezkaritzako Informazio Atalera edo Hezkuntza Berriztatzeko Atalera bidali beharko dira ziurtagiriak.

5. artikulua.– Matrikula-epeak.

Prestakuntza-jarduerak eskatzeko epe jakin batzuk izango dira, eta zein bere epean baino ezin go da eskatu. Epe jakin batean epe horretakoa ez den jarduerarik eskatuz gero, eskabidea ez da kontuan hartuko.

1.– Matrikula egiteko lehenengo epea 2013ko uztail, abuztu, irail eta urriko jardueretarako da eta 2013-2014an liberatuta atzerrian egiten diren hizkuntza-ikastaroetarako. Matrikula-epea, berri, 10 egun naturalekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Matrikula egiteko bigarren epea, berriz, 2013ko azarotik 2014ko ekaina bitartean egiten diren jardueretarako izango da, eta matrikula irailaren 10etik 28a bitartean egin beharko da, egun bi horiek barne.

3.– Epe berezia: deialdia ebatzi ondoren eta deitutako eta baliogabetu gabeko ikastaro edo jardueraren batean plaza hutsak geratuz gero, Saileko web orrialdean horren berri emango da, eta jardueraren hasiera-data arte plaza eskatzeko aukera izango da. Eskabidea agindu honen II. eranskinaren bitartez egin beharko da, eta eskatzailearen lanpostua nongoa, Hezkuntza Sailak lurralde horretan duen informazio-atalean edo Hezkuntza Berriztatzeko atalean entregatu beharko da. Eskabideak aztertuko dira egiaztatzeko ikastaro bakoitzerako eskatzen diren baldintzak bete

egiten dituztela; onartzeko irizpidea izango da zein egunetan aurkezten den eskabide-orria. Berdinketarik egonez gero, agindu honen 6.10 artikulua dioena beteko da.

6. artikulua.– Parte-hartzaileak aukeratzeko baldintzak.

Prestakuntza-jarduerak gorabehera, parte-hartzaileak aukeratzeko, baldintza hauek hartuko dira kontuan:

1.– Parte-hartzaileak kanporatu egingo dira, baldin eta prestakuntza-jarduerako deskripzio-fitxan azaltzen diren baldintza edo salbuespen guzti-guztiak betetzen ez badituzte.

2.– Garatu 2011-2012 eta 2012-2013ko jardueretako parte-hartzaileek justifikatu gabe huts egin bazuten ikastaroetan eta Garatu 2013-2014ko jardueretan parte hartzeko eskatzen badute, bakarrik onartuko dira baldin eta plaza hutsik geratzen bada gainerako eskabideei hautatzeko irizpideak aplikatu eta gero.

3.– Atzerriko hizkuntzetako ikastaro edo prestakuntza-ekintzetatik kanpo geratuko dira irakasleak, baldin eta eurek duten egiaztagiria edo maila handiagoa bada eskatzen duten ikastarokoa baino eta ikastaroko edukiekin zerikusia badu, betiere ikastaroko fitxan hala zehazten bada.

Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleek ezin izango dute atzerrian ikasteko ikastarorik eskatu.

4.– Aurten 0 maila egiteko deitzen diren ikastaroetatik kanpo geratuko dira irakasleak, baldin eta Garatu 2012-2013an atzerriko hizkuntzako oinarritzko maila egiteko onartu baziren.

5.– Atzerriko hizkuntzetako ikastaroetatik edo atzerrian egiten diren ikastaroetatik kanpo geratuko dira irakasleak, baldin eta atzerriko hizkuntzako beste ikastaro batean edo atzerriko beste ikastaro batean parte hartu badute Garatu planeko aurreko bi deialdietan (2011-2012an eta 2012-2013an). Toki librerik geratzen bada, ordea, onartu ahal izango dira.

6.– Ikastetxeko irakasle bakarra joan ahal izango da atzerrian egin baina hizkuntza-edukiak joratzekoak ez diren ikastaroetara.

7.– Inork ezin izango du prestakuntza-jardueretan edo ikastaroetan parte hartu, baldin eta zehapen penala edo administratiboa jasotzearen diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta badu edo horretarako gaitasun kentzen dion legezko debekurik badu, sexua bereiztearren eragindakoak barne, beti ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

8.– III. eranskineko baremoak aplikatuko zaizkie baldintza horiek guztiak bete eta arestian adierazitako arrazoen batengatik kanporatu ez diren guztiei.

9.– Puntuazio bera izanez gero, eskabidea egin eta deialdia ebazten denean ikastetxean den bekadunen portzentajeak erabakiko du izangaien hurrenkera. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, ebazteko, eskatzaileak zerbitzuan eman duen denborari erreparatuko zaio.

10.– Eskatzaileek nahi beste prestakuntza-jarduera eskatu dezakete denboraldi baterako, baina denboraldiko bakar baterako baino ez da onartuko; horretarako, kontuan hartuko da eskabidean adierazitako lehentasun-ordena. Denboraldi-kode bera duten prestakuntza-jarduerak bateraeziki dira. Horren inguruko oharrak:

Lehenengo matrikulazio-aldiko (2013ko maiatzeko) kodeak:

61.– Hizkuntza-ikastaroak udan.

02.– 2013ko uztaila.

03.– 2013ko iraila.

04.– 2013ko urria.

07.– Urte osoko ikastaroak.

05.– Onlineko ikastaroak.

63.– Proiektu-ikastaroak.

Bigarren matrikulazio-aldiko kodeak (2013ko iraila):

01.– Ikasturte osoa (2013ko azarotik 2014ko ekainera).

10.– 2013ko azaroa eta Abendua.

20.– 2014ko urtarrila, otsaila eta martxoa.

30.– 2014ko apirila, maiatza eta ekaina.

06.– Online 1.a.

65.– Online 2.a.

09.– Proiektu-ikastaroak.

11.– Orokorrean, irakasleei ez zaie eskainiko ikastetxeko proiektuei lotutako prestakuntza-jarduerik; proiektu horiek ikastetxe horietako eskatzaileei baino ez zaie eskainiko.

7. artikulua.– Deialdia ebaztea.

1.– Deialdia Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du, batzorde batek proposatuta. Batzorde hori osatuko dute Irakaslegoa Hobetzeko Zerbitzuko arduradunak edo hura eskuordetzen duenak –batzordeburu izango da– eta Saileko funtzionarioak; Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuko ditu eta hiru izango dira gutxienez, eta zortzi, gehienez.

2.– Lehen matrikulazio-aldian, 2013ko ekainaren 15a baino lehenago argitaratuko dira ikastaroak egiteko onartutakoen behin behineko zerrendak eta urriaren 30a baino lehenago, berriz, bigarren matrikulazio-aldian. Zerrenda horiek Saileko web orrian argitaratuko dira; bertan adierazi egingo da zein den hautatze-prozesuaren emaitza eskatutako ikastaro guztietarako, zein ikastaro ezeztatu den eskatutako baldintzak betetzen dituen eskabiderik ez izatearren eta zein ikastarotan geratu den plazaren bat hutsik; plaza hutsak, berriz, agindu honetan azaldutako moduan eskatu ahal izango dira.

Eskatzaile guztiek irakaslegunea atariko aplikazio informatikoan ikusi ahal izango dute onartu dituzten ala ez jarduera batean.

3.– Interesdunek 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak egiteko edo eskaerei uko egiteko; zein bere matrikulazio-aldiko behin-behineko zerrendak argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Behin betiko zerrendak Sailaren web orrian argitaratu eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan jarriko dira, ikastaroka eta eskatzaileka (abizenen hurrenkera alfabetikoaren

arabera). Zerrendetan azalduko da eskatzaileek zein egoeratan geratu diren eskatutako jarduera bakoitzean, eta azaldu ere honela azalduko da:

a) Onartua: ikastaroan plaza duten pertsonak.

b) Gordeta: ikastaroan plazarik ez duten pertsonak, ikastaroan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaera gehiegi dagoelako. Egoera horretan dauden pertsonak, ikastaro-hasieran aurkezten direnak, onartuak izango dira, behin betiko zerrendan duten hurrenkeraren arabera, baldin eta onartutako beste lagunen bat ikastarora joaten ez bada.

c) Baztertua: deialdian adierazitako baldintzak edo ikastaro-fitxak betetzen ez direlako edo aldiak bateraezinak direlako.

d) Baztertzeko arrazoiak:

A: eskabidea ez dago osorik.

C: lan-egoera.

I: aldia bateraezina da.

K: ez du betetzen baldintza berezi bat.

L: ikastaroa ezeztatu egin da.

H: eskatzaileak atzera egin du.

E: ez du atzerriko hizkuntzako titulua.

F: ez du ikastetxeko zuzendaritzaren baimena, Agindu honetako 4.3 artikuluan aipatzen diren jardueretarako.

5.– Ebazpenik ematen ez bada deialdi bakoitzak horretarako ezarritako epean, eskabideei ezezkoa eman zaiela ulertuko da; dena dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak Administrazioari ebazteko beharra ezartzen dio.

6.– Behin betiko ebazpenaren kontra, interesdunek gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpenok lurralde-ordezkaritzetan argitaratu eta hilabeteko epearen buruan.

8. artikulua.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Onartutako ikastaroa noiz hasiko den jakinarazteko, jakinarazpen bat bidaliko da norberaren helbide elektronikora; nolahi ere, Hezkuntzako web gunean eta irakaslegunean ere kontsultatu ahal izango da.

2.– Behin betiko zerrendak argitaratu eta gero, prestakuntza-jarduerari uko egiteko, justifikatutako arrazoiak azaldu beharko da. Uko egiteko jakinarazpena Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-burutzara bidali beharko da, uko egitea justifikatzen duen gertaera jazo eta berehala bidali ere, eta bakar-bakarrik onartuko da agiri-euskarria eransten bazaio.

3.– Jarduerako zuzendaritzak aldi edo atazaren bat baliokidetu eta hura egitetik salbuetsi ezean, onartutako prestakuntza-jardueran programatuta dauden aldi eta ataza guztiak egin beharko dituzte parte-hartzaileak.

4.– Ikastaroa hasten denean parte-hartzailea ez bada eta aurretik ezer ohartarazten ez badu, beraren tokia beste bati emango zaio, hain zuzen ere tokiak gordetzeko zerrendan une horre-

tan lehenengo dagoen lagunari emango zaio. Hutsegite hori ez justifikatzeak irakaslea zigortzea ekarriko du; ondorioz, ez da Garatu 2014-2015 eta 2015-2016 ikastaroetan onartuko, eta onartzekotan ere bakar-bakarrik plaza hutsik geratzen bada gainerako eskabideei hautatzeko irizpideak aplikatu eta gero.

5.– Prestakuntza-jarduerak fase bakarra edo gehiago izango dituzte, eta hainbat motatakoak izan daitezke:

a) Jarduera-tokian bertan egitekoak:

A: irakastorduen barruan, erabateko liberazioaz. Liberatuz gero, parte-hartzaileari ordezkoa jarriko zaio irakas-egunetan. Ordezkoek ikastaro horietan plaza bete ahal izango dute, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte: 150 orduetik beherako ikastaroak, jarduera bakarri liberazioaz pertsonako eta ikasturteko, eta urte osoko lanpostua betetzea.

B: irakastorduetan osorik edo zati bat, liberatu barik.

D: irakastorduez kanpo.

E: luzatzeko aldi presentzialak, mintegi, tutoretza,... erakoak.

b) Jarduera- tokian bertan egin behar ez direnak:

F: praktikak: normalean parte hartzen duen ikastetxean bertan, enpresa edo erakunde batean,...

G: proiektua, txostena edo memoria egitea: ikastaroa ematen duen erakundeak adieraziko du nola, eta erakundeari entregatu beharko zaio, baina Sailak eskatu ahal izango du.

H: ikastaroak online.

6.– Ikastaroa hasi aurretik, erakunde antolatzaileak hasierako ebaluazioa egingo die atzerriko hizkuntzen ikastaroetan onartutako lagunei, eta baten maila ez badator bat ikastaroaren hasierako diseinuko mailarekin, beste bati emango zaio tokia, hain zuzen ere itxarote-zerrendan dagoen batek.

7.– Ikastaroak egiten diren bitartean, bakarrik joko dira jaieguntzat Euskal Autonomia Erkidego-ko egutegi ofizialean azaltzen direnak.

8.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ikastaroak ezeztatu ahal izango ditu, eskabide nahikoa onartzen ez direnean edo ikastaroa egiterik ez dagoenean, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendari-tzarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta.

9. artikulua.– Liberatuta ikastaroan parte hartzea: eskabidea eta baldintza bereziak.

Prestakuntza-jarduerak eskatzeko, irakasleek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.– Ikastetxeko zuzendaritzaren baimena beharko dute prestakuntza-jarduerak osorik edo partzialki irakastordutegia egin behar dituztenean edo prestakuntza-jarduerak liberatuta egin behar dituztenean eskola-egutegian (IV. eranskina). Egiaztatuz gero liberazioa eskatzen duen jarduera bateko eskatzaileak ez duela ikastetxeko zuzendaritzako baimenik, kanporatu egingo da jarduera horretatik.

2.– Inor liberatzeko, bermatu egin beharko da ordezkoa jarriko zaiola ikastaroa egiteko liberatuen lagunari.

3.– Liberatzea eskatzen duen prestakuntza-jarduera batean onartuz gero, ikasturte horretan ezin izango da liberatzea eskatzen duen beste batean parte hartu.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ikastetxeetako irakasleak baino ez dira liberatuko. Aldi horretako irakastegun guztietan ordu biko hiru saio izango dira (09:00-11:00, 11:30-13:30 eta 15:00-17:00); goizean batu ahal izango dira saio horiek, parte-hartzaile eta irakasleek aurretik hori adostuz gero). Nolanahi ere, lanaldia sei irakastordukoa izango da, saio arteko atsedenaldez aparte.

5.– Irakasleak liberatuta daudenean, ikastaroa egiten den tokia joko da parte-hartzaileen lantokizat ordutegi, baja, baimen eta bestelako gorabeherak betetzeko.

6.– Ikastaro horietan parte hartu nahi baina Sail honen menpekoak ez diren ikastetxeetako parte-hartzaileek nork bere ikastetxeko zuzendaritzako baimena izan beharko dute.

7.– Ikastaro hauetan, diziplinako espedientea ireki ahal izango, ireki behar izanez gero, da justifikatu gabe ikastaroetara falta izanez gero.

10. artikulua.– Prestakuntza-jardueren jarraipena.

1.– Ikastaro guztien jarraipena eta ebaluazio orokorra gorabehera, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak jarraipen eta ebaluazio bereziak eskatu ahal izango ditu, eta jarraibide zehatzak emango ditu horretarako.

2.– Aktak eta ziurtagiriak.

a) Jarduera amaitu eta gero, jardueraren garapenari buruzko txosten edo akta bidaliko dio erakunde arduradunak Irakaslegoaren Hobekuntzarako Administrazio Atalari; bertan, ziurtagiriak izapidetzeko eta: jardueraren garapenari buruzko balorazioa, parte-hartzaileek izan duten partizipazio-, inplikaizo- eta aprobetxamendu-mailari buruzko txostena, nori berea; azkenik, parte hartu duten irakasleen zerrenda, berariaz adieraziko duena parte-hartzearen portzentajea eta nortzuk jotzen diren gaitzat, beti ere aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera. Irizpide horien berri erakundeak eman beharko die parte-hartzaileei.

b) Onartutako lagunak ikastaroetara joan egiten direla kontrolatuko du erakunde emaileak. Era berean, erakundearen ardura da Irakaslegoaren Hobekuntza zerbitzura emaila bidaltzea, lehenengo eguneko parte-hartzaileen zerrendarekin. Parte-hartzaileak gaitzat jotzeko, derrigorrezkoa da jarduera-orduen % 80an joatea klaseetara, gutxienez, salbu agindu honen 8.3 artikuluan adierazitakoan; era berean, G motako aldia –agindu honetako 8.5.b) artikuluan adierazitakoa– duten ikastaroetan, derrigorrezkoa izango da proiektua entregatzea. Parte-hartzaileak ez gaitzat jarduer-orduen % 80 betetzen ez badute; ezin izango dute ziurtagiririk lortu. Gainera, huts egiteak justifikatu beharko dituzte; zigortu egingo zaie, 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Akta itxia izango da, eta gerora ezin izango zaio ezer aldatu, errakuntzak edo aipatu gabeak izan ezik; edonola ere, aldaketak ondo justifikatu beharko dira agiri bidez.

d) Jarduerak gaindituz gero, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko irakasleak berritu eta prestatzeko jardueren datu-basean jasoko dira. Interesdunek datu-base hori kontsultatu ahal izango dute, indarrean den legediaren arabera, eta bertatik Berritu eta Prestatzeko Jardueren Ziurtagiria inprimatu ahal izango dute.

11. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ziurtagiriak» 5. fitxategia izeneko fitxategi batean sartuko dira (diru-laguntzen) deialdi hau kudeatzeko eta deialdi honetan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren ardura Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarena da, eta zuzendaritza horretara (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) jo beharko da datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideez baliatzeko.

Era berean, deialdi honen parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan prozedurari buruz aurreikusi ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikatuko da osagarri modura.

Bigarrena.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari baimena ematen zaio agindu hau garatu eta ezartzeko beharrezko jarraibideak emateko.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Laugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren kontra, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Polítika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 9a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

I. ERANSKINA

IKASTAROEN ZERRENDA

Kod.	Ikastaroak
010	Arreta goiztiarra
011	Hezkidetzan Hezten
012	Hezkidetzan Hezten
013	Hezkidetzan Hezten
014	Hezkidetzan Hezten
015	La práctica psicomotriz en Educación Infantil (Iniciación)
016	Psikomotrizitatea eta Jolasa Haur Hezkuntzaren 1. zikloan
017	Psikomotrizitatea eta Jolasa Haur Hezkuntzaren 1. zikloan
018	Sormena garatzeko ikusmen-arteak tresnak
050	Actividades didácticas para utilizar el blog en las aulas de Lenguas
051	Adimen emozionala eta Hezkuntza
052	Ahozko eta idatzizko ataza komunikatiboak sortzea
053	Arbela digitalaren erabilera praktikoa
055	Ikusmen-artearen hezkuntzari begirada gaurkotua
056	Jarduera didaktikoak Hizkuntzen geletan bloga erabiltzeko
057	Jolastuz ikasi
059	Zientzia Lehen Hezkuntzan: Ikerketa-Proiektu baten gauzapena
060	Science in Primary
061	Zientzia hezkuntza Lehen Hezkuntzan
062	Zientzia hezkuntza Lehen Hezkuntzan
063	Zientzia hezkuntza Lehen Hezkuntzan
064	Bibliotecas escolares, la ilustración del cuento y del libro infantil, el teatro y otros recursos (nivel 1)
065	La utilización del títere en bibliotecas y en el aula: tenemos una nueva mascota
067	Dislexia y otras dificultades lectoras: su tratamiento en el aula
068	Lehen Hezkuntzarako zientzia-esperimentuen tailerrak, eguneroko materialez baliatuta
100	Arte bisual eta kultura bisualarekin ikasten
101	Arte bisual eta kultura bisualarekin ikasten
102	Introducción a la robótica en Educación Primaria y Secundaria con Scratch
103	Irudi digitalen tratamendua arte hezkuntzan
104	Kantua musika gelan: abesbatzen dinamizazioa eta zuzendaritza
105	LOVA: la ópera como vehículo de aprendizaje por competencias
106	Rezikletas: recursos para la educación musical
150	Actividades didácticas para utilizar el blog en las aulas de Lenguas
151	Ahozko eta idatzizko ataza komunikatiboak sortzea
152	Arduino plaka programatzeko tailerra / Taller de programación de Arduino
155	Educar para prevenir la violencia de género
156	Emakumeen kontrako biolentzia prebenitzea
157	Fundamentos del diseño y propuestas prácticas de aplicación
158	Gaur egungo munduaren historia 1945-2012 dokumentuetan
159	Gaur egungo munduaren historia 1945-2012 dokumentuetan
160	Google Earth eta Google Maps, Geografia irakasteko tresnak digitalak
161	Jarduera didaktikoak Hizkuntzen geletan bloga erabiltzeko

Kod.	Ikastaroak
162	Kimika Ikasteko Saiakuntza Bitxiak
163	Wirisquizzes
164	Matematika interaktiboak
165	MMM Matemáticas, Moodle y Multimedia
166	Nanotecnología: el gran reto de lo pequeño
167	Procedimientos prácticos y creativos para el Dibujo
168	Procesos de arte y cultura visual
169	Azar y probabilidad
170	Didáctica de la lengua oral y competencia digital
171	Escribir en línea
172	Flipped classroom matematikan
173	Genero-biolentzia detektatu eta aurre egin
174	Hizkuntzari buruzko gogoeta. Tailerra
175	Sentsore digital eta analogikoak Picaxe sisteman
200	Language for teachers with A1 certificate
201	Language for teachers with A1 certificate
202	Language for teachers with A1 certificate
203	Language for teachers with A1 certificate
204	Language for teachers with A1 certificate
205	Language for teachers with A2 certificate
206	Language for teachers with A2 certificate
207	Language for teachers with B2 certificate
208	Language for teachers with B2 certificate
209	Language for teachers with B2 certificate
210	Language for teachers with B2 certificate
211	Language for teachers with B2 certificate
212	Language for teachers (Beginners)
213	Language for teachers (Beginners)
214	Language for teachers (Beginners)
215	Language for teachers (Beginners)
216	Language for teachers (Beginners)
217	Language for English teachers
218	Language for English teachers
219	Language for English teachers
220	Language for teachers with B1 certificate
221	Language for teachers with B1 certificate
222	Language for teachers with B1 certificate
223	Language for teachers with B1 certificate
224	CLIL with B2 certificate
225	ICT for language learning
226	ICT for language learning (on-line)
227	Methodology of English teaching
228	Talk English
229	Talk English
230	Oral skills in secondary

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

Kod.	Ikastaroak
231	Oral skills in secondary
232	Creative English
250	Adimen emozionala eta aldaketaren kudeaketa zure lanpostuan
251	Adimen gaitasun handiko ikasleei erantzuna eskola inklusiboan
252	Aprender a aprender: como mejorar las estrategias de aprendizaje en el aula
253	Aprendizaje Dialógico
254	Arazo mentalak dituzten ikasleekin eskuhartzea ikuspegi inklusibo batetik
255	Asperger sindromea
256	Autismo edota garapenaren nahaste orokorra duten ikasleen autonomia eta komunikazioa garatzen TEACCH
257	Autismo edota garapenaren nahaste orokorra duten ikasleen autonomia eta komunikazioa garatzen TEACCH
258	Behar bereziak gorputz heziketa arloan
259	Bodypercussion (Percusión corporal)
260	Bodypercussion (Percusión corporal)
261	Bodypercussion como herramienta innovadora en el área de Música
262	Coaching para la acción tutorial
263	Cultura gitana y claves para la superación de las barreras al aprendizaje y a la participación
264	Cultura gitana y claves para la superación de las barreras al aprendizaje y a la participación
265	Cultura gitana y claves para la superación de las barreras al aprendizaje y a la participación
266	Deseando ser. La educación ante las minorías y la diversidad sexual
267	Deseando ser. La educación ante las minorías y la diversidad sexual
268	Deseando ser. La educación ante las minorías y la diversidad sexual
269	Dolua eta galerak
270	Dolua eta galerak
271	Dolua eta galerak
273	Edmodo ikasgelarako sare soziala
274	Educación física con material reciclado
275	El Apoyo Conductual Positivo para manejo de las conductas desafiantes en el alumnado con discapacidad
276	El impacto de las Nuevas Tecnologías en las Dificultades de Aprendizaje
277	Eskola materialetan sexismoa antzematen ikastea
279	Estrategias comunicativas para el profesorado con alumnado con discapacidad auditiva
280	Estrategias para manejar los problemas de conducta
281	Geologia praktikoa
282	Gestion emocional del aula
283	Google earth eta google maps, zientzia-hezkuntzarako tresnak
284	Gorputz Heziketa 2.0
285	Herramientas para identificar y actuar ante la violencia de género en el ámbito escolar
286	Heziketa literarioa
287	Hezkidetza kultur anitzeko ikastetxeetan
288	Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna. Hizkuntza trebetasunak lantzen.
289	Ikasten ikastea: ikasteko estrategiak hobetzea
290	Ikasten ikastea: ikasteko estrategiak hobetzea
291	IKT-en Dinamizazioa Ikastetxeetan 2
292	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo
293	Intervención con familias: alumnado con necesidades educativas especiales
295	Irristaketa gorputz heziketan

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

Kod.	Ikastaroak
296	Kultura arteko hezkuntzaren garapena informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bitartez
297	La coeducación en centros multiculturales
298	La Dinamización de las TIC en los centros educativos 2
299	La evaluación psicopedagógica en la escuela inclusiva
300	La Planificación Centrada en la Persona (PCP)
301	La Planificación Centrada en la Persona (PCP)
302	La Tecnología móvil como facilitadora de la comunicación del alumnado con discapacidad
303	Landarediaren azterketa ikasgelan
304	Laneko gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea
305	Laneko gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea
306	Malabareak gorputz heziketan
307	Mintzamina eta ahozko elkarreragina garatu eta ahozko komunikazioa baliatu ikasteko prozesuak hobetz
308	Nola sortu irakaslearen PLEa, ikaskuntzarako ingurune pertsonalizatua?
309	Parkour: Gorputz heziketarako eduki berri bat
310	Supervisión de casos para mejorar la tarea laboral
311	Técnicas activas de conducción grupal
313	Ahozko hizkuntza zein hizkuntza idatzia ebaluatzeko adierazleak, irizpideak eta baliabideak
314	Alfabetatze ekologikoa_1
315	Alfabetatze ekologikoa_2
316	Biodibertsitatea eta Eskolako Agenda 21
317	Coordinación de Agenda 21 escolar
318	Educación en y para el conflicto I
319	Educación en y para el conflicto I
320	Educación en y para el conflicto I
321	Energía eta Eskolako Agenda 21
322	Eskolako Agenda 21eko Sarrera ikastaroa
323	Hizkuntza indartzeko programaren irakasleentzako etengabeko prestakuntza
324	Hondakinak eta Eskolako Agenda 21
325	Klima aldaketa eta Eskolako Agenda 21
326	Kontsultore eta orientatzaileen lana adimen gaitasun handiko ikasleen erantzunean
327	Kontsultore eta orientatzaileen lana ikaste zailtasunei erantzuteko(AFN-TDAH,Dislexia,diskalkulia)
328	Kontsumo jasagarria eta Eskola Agenda 21
329	Kulturarteko Hezkuntza Praktikan
330	Making Content Comprehensible
331	Mugikortasuna eta Eskolako Agenda 21
332	Representante de Igualdad en el Consejo Escolar
333	Representante de Igualdad en el Consejo Escolar
334	Representante de Igualdad en el Consejo Escolar
335	Ura eta ibaiak Eskolako Agenda 21en ikuspuntutik
336	Zuzendaritza proiektua egiteko gida aurkezteko ikastaroa
337	Zuzendaritza proiektua egiteko gida aurkezteko ikastaroa
338	Zuzendaritza proiektua egiteko gida aurkezteko ikastaroa
339	Language for English teachers
340	El cine como herramienta para educar en ser persona
341	El cine como herramienta para educar en ser persona

Kod.	Ikastaroak
342	Desarrollo de estrategias educativas para profesorado con alumnado con discapacidad auditiva
343	Zientziako 10 gai irakasteko baliabide digitalak
500	VIDEO: Grabación y edición
501	Analising the oral and written skills according to the CEFR
502	Analyse des descripteurs des compétences d'expression écrite et orale d'après le CECR
503	Deutsch: Auswertung von Deskriptoren des Mündlichen und Schriftlichen Ausdrucks dem Gemeinsamen Euro
504	Español: Análisis de los descriptores de las destrezas de las expresiones escrita y oral según el M
505	Euskera: Mintzamen eta idazmen trebetasunen deskribatzaileen azterketa
506	Moodle avanzado para profesores de EOIS
507	Moodle básico para profesores de EOIS
551	El entrenamiento auditivo: teoría y práctica
552	La voz infantil y adolescente: tratamiento en las clases de lenguaje musical y coro
553	Nuevas tecnologías para la grabación, edición, improvisación y publicación en Internet
554	Teknika koralaren didaktika
555	Teknika koralaren didaktika
701	Language for teachers (Beginners)
702	Language for teachers (Beginners)
703	Language for teachers (Beginners)
704	Language for teachers with A1 certificate
705	Language for teachers with A1 certificate
706	Language for teachers with A1 certificate
707	Language for teachers with A2 certificate
708	Language for teachers with A2 certificate
709	Language for teachers with B1 certificate
710	Language for teachers with B1 certificate
711	Language for teachers with B1 certificate
712	Language for teachers with B2 certificate
713	Language for teachers with B2 certificate
714	Language for teachers with B2 certificate
720	¿Qué pasa dentro del aula? propuestas para mejorar la vida escolar
721	Mobile learning en una escuela inclusiva
722	Hizkuntzen irakaskuntza eta gaitasun digitala
723	Euskal curriculumaren garapena: asmoetatik errealitatera
724	En français aussi! l'école multilingue en construction
725	El profesor de segundas lenguas/VI: competencias digitales para la enseñanza y el aprendizaje-(I) profesores digitales
726	Multilingual education for multilingual citizen: content and language integrated learning in europe
727	Once upon a time... techniques for storytelling in english
728	Aga duten ume eta nerabeentzako eskuhartze psiko-hezitzaileak
729	Idazketa sortzailea gelan, nitikgura-l- dinamika, abiapuntuak eta baliabideak
731	Methodology of English teaching
732	Methodology of English teaching
741	Zientzia hezkuntza Haur Hezkuntzan
742	Zientzia hezkuntza Haur Hezkuntzan
743	Zientzia hezkuntza Haur Hezkuntzan

Kod.	Ikastaroak
750	Blogekin lehengo pausoak Hizkuntzen geletan
751	La Dinamización de las TIC en los centros educativos 1
752	Matematika eskura LHn
753	Primeros pasos con un blog en las aulas de Lenguas
755	Claves para trabajar en el aula con el alumnado gitano
756	Claves para trabajar en el aula con el alumnado gitano
757	Claves para trabajar en el aula con el alumnado gitano
758	Haur Hezkuntzako matematikaren didaktikan eguneratzen elkarrekin
759	Lehen Hezkuntzako matematikaren didaktikan eguneratzen elkarrekin
760	Bibliotecas escolares: dotando de vida las imágenes creadas: como contar cuentos
761	Biblioteca escolar 2.0
765	Zientzia Bigarren Hezkuntzan: Ikerketa-Proiektu baten gauzapena
780	Arduino plaka programatzeko tailerra
781	Bioteknologia: orainaldia eta etorkizuna
782	Colaboración de profesores de matemáticas en la Nube
783	Construcciones matemáticas dinámicas con Geogebra
784	Construyendo juntos el site del profesor de matemáticas
785	El cine documental en la clase de Ciencias Sociales
786	Gizarte Zientziak arloko klaseak emateko IKTko tresnak
787	Matemáticas interactivas
788	Memoria-historikoaren lanketa DBHn; proiektuetan oinarritutako ikaskuntza metodologiaren bidez
789	MM Matematika eta Moodle
790	Multimedia expositiva para la enseñanza de la historia
791	Relaciones igualitarias y de buen trato entre jóvenes en las redes sociales
792	Trabajos prácticos en el laboratorio de física y química
793	Una metodología basada en la resolución de problemas matemáticos para la eso y el bachillerato
794	Elektronika Digitala
795	Science in Secondary
796	Utilización y recursos de la Pizarra Digital en las aulas de Lenguas
797	Zientzietako lanak aurkezteko tresna digitalak
900	Adimen gaitasun handiko ikasleei erantzuna eskola inklusiboan
901	Adoptatutako haurrak eskola inklusiboan
902	Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleei erantzuna eskola inklusiboan
903	Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleei erantzuna eskola inklusiboan
904	Autonomia pertsonala, profesionala eta soziala lantzeko tresnak
906	Diseño de materiales educativos con exeelearning
907	Edmodo ikasgelarako sare soziala
908	Gipuzkoako natura-ibilbideen erabilera didaktikoa
910	GPS: baliabide didaktikoa
911	Herramientas digitales para la enseñanza de las ciencias
912	Herramientas para identificar y actuar ante la violencia de género en el ámbito escolar
913	Ikasle guztien presentzia, partaidetza eta arrakasta lortzeko estrategia inklusiboak
914	Ikasle guztien presentzia, partaidetza eta arrakasta lortzeko estrategia inklusiboak
915	IKT-en Dinamizazioa Ikastetxeetan 1
916	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

Kod.	Ikastaroak
917	Kultura arteko hezkuntza: pentsatu, sentitu eta egin
918	La escuela inclusiva: la diversidad sexual y la transexualidad, estrategias educativas para su abord
919	La escuela inclusiva: la diversidad sexual y la transexualidad, estrategias educativas para su abord
920	La escuela inclusiva: la diversidad sexual y la transexualidad, estrategias educativas para su abord
921	La Tecnología móvil como facilitadora de la comunicación del alumnado con discapacidad
922	Nola sortu irakaslearen PLEa, ikaskuntzarako ingurune pertsonalizatua?
923	Prevención de conflictos interculturales en el aula
924	Recursos informáticos para dar respuesta al alumnado de necesidades educativas especiales
925	Salud mental: todos somos parte del tratamiento (escuela, familia, sociedad)
926	Técnicas activas de conducción grupal
927	Testu-liburuetan sexismoa hautemateko adierazleak eta jarraibideak
928	Ubuntu
933	Educación en y para el conflicto II
934	Educación en y para el conflicto II
935	Eskolako Agenda 21 Sarrera Ikastaroa
936	Eskolako agenda 21_1
937	Eskolako Agenda 21_2
938	Formación continua para el profesorado dinamizador de los proyectos interculturales
939	Gizonak, Berdintasuna eta Maskulinitasuna
940	Hizkuntza Proiektua: hizkuntzen inguruko erabakien gunea
941	Hombres, igualdad y masculinidad (on-line)
942	Aplicación inventario V-93
943	Aplicación inventario V-93
944	Aplicación inventario V-93
945	Aplicación inventario V-93
946	El cine como herramienta para educar en ser persona
947	Art trough english
948	Eskola 2.0 eta IKTn erabilpena ikasgelan
951	Elaboración y redacción de exámenes de las EE00II de la CAPV
952	Ikasle eta irakasleen usteak. Diskurtsoaren analisisa
953	Multiple Intelligenzen im Deutschunterricht
980	Herramientas web 2.0 para la enseñanza de personas adultas

II. ERANSKINA

GARATU 2013-2014 IKASTAROEN DEIALDIRAKO ESKABIDE EREDUA

DATU PERTSONALAK

NAN: _____ 1. abizena: _____

2. abizena: _____ Izena: _____

Ikastetxea: ikastetxearen kodea _____

Izena: _____

Helbidea: _____ PK: _____

Udalerrria: _____

PARTEHARTZAILEAK BERAK BETE BEHARREKO DATUAK

Telefonoa: _____ Posta el.: _____ (eremu hau nahitaez bete behar da)

ADIERAZI ZEIN GARATU 2013-2014 PLANEKO ZEIN PRESTAKUNTZA JARDUERA ESKATZEN DUZUN, LEHENTASUN ORDENAREN ARABERA

Agindua	Kodea	Izena	Aurkezten duzun dokumentazioa (jarri X dagokionari)		
			Zuzendaritza- baimena (V. erans- kina) ¹	Zuzendaritza- ren proposa- mena (VI. eranski- na)	Eskatzen diren tituluen ziurtagiriak
1.a					
2.a					
3.a					
4.a					
5.a					

- Eskatzaileak aitortzen du badakiela zeintzuk diren GARATU 2013-2014 Planeko ikastaroetan matrikulatzeko baldintzak.
- Eskatzaileak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzeko zigor penal edo administratiborik, eta ez dago horretarako ezgaitzen duen lege-debekuan, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.
- Parte-hartzaileak aitortzen du badakiela eta onartu egiten duela deialdi honetan jasotako datu pertsonalak izapidetzean «Ziurtagiriak» izeneko 5. fitxategi izeneko fitxategi batean sartuko direla, tratatu eta argitaratzeko. Fitxategi horren helburua izango da (diru-laguntzen) deialdi hau kudeatzea eta deialdi honetan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri ematea, beti ere Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorrituz Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1-01010 Vitoria-Gasteiz.

¹ Bakarrik 4.3 artikuluan azaltzen diren egoeretarako.

Eguna eta eskatzailearen sinadura

Ikastetxearen zigilua

III. ERANSKINA

BAREMO OROKORRA

A) Administrazio-egoera	Gehienez, 5 puntu
1.- Karrerako funtzionarioa edo lan-legepeko kontratuduna izatea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxeetan	4 puntu
2.- Bitartekoa: ordezkoa	2 puntu
3.- Lan-legepeko kontratu mugagabea ikastetxe pribatuetan	4 puntu
4.- Ordezko-kontratua ikastetxe pribatuetan	2 puntu
5.- Ezabatutako ataletako irakasleak	1 puntu
B) Laneko esperientzia	Gehienez, 5 puntu
Lehenengo matrikulazio-epea: Zerbitzu-urteak hezkuntzan 2013ko apirilaren 30 arte (egun hori barne): 0,5 puntu urteko, 0,042 hilabeteko eta 0,0014 eguneko	
Bigarren matrikulazio-aldia: Zerbitzu-urteak hezkuntzan 2013ko abuztuaren 31 arte (egun hori barne): 0,5 puntu urteko, 0,042 hilabeteko eta 0,0014 eguneko	
C) Ikastetxeko premien zerrenda (zuzendaritzak proposatua)	5 puntu
GEHIENEZ ERE, GUZTIRA	15 puntu

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

IV. ERANSKINA

ESKAERA EREDUA: IKASTETXEAREN ZUZENDARITZAKO BAIMENA, PRESTAKUNTZA JARDUERAK OSORIK EDO PARTZIALKI IRAKASTORDUTEGIAN EGITEKO, ESKOLA EGUTETITIK LIBERATUTA (9.1 ART.)

Nik, _____-k,
_____ ikastetxeko zuzendari naizen honek
(ikastetxearen kodea: _____) adierazten dut jakitun nagoela eskatzaile honek eskabidea aurkeztu duela.

ESKATZAILEAREN DATUAK

Abizenak eta izena: _____ NAN: _____

eta eskatzaile horrek ikastaroan parte hartzeko baimena ematen dut, beti ere agindu honetako 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz

- Irakastorduen barruan: guztiz edo partzialki
 Eskola-egutegitik liberatuta

JARDUERAREN DATUAK

Kodea: _____ Izena: _____

(Non).....(e)n, 2013koren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxeko zigilua

Eskatzailearen lantokia nongoa, Hezkuntzak lurralde horretan duen ordezkartzako Hezkuntza Berriztatzeko Informazio Atalera bidali behar da.

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

V. ERANSKINA

EREDUA: IKASTETXEKO ZUZENDARITZAREN PROPOSAMENA, PRESTAKUNTZA JARDUERAK EGITEKO

Nik, _____-k,
_____ ikastetxeko zuzendari naizen honek
(ikastetxeko kodea: _____).

Aitortzen du badakiela Garatu 2013-2014n parte hartzeko eskaera egin duela honek:

ESKATZAILEAREN ETA JARDUERAREN DATUAK

Abizenak eta izena: _____ NAN: _____
Jardueraren kodea eta izean: _____

Eta kontuan izanik zuzentzen dudan ikastetxeko inguruabar hauek:

Eskatzen dut pertsona horri onartzeko arestian adierazitako prestakuntza-jardueran parte hartzeko.

(Non)-(e) an, 2013ko-ren-(e) an.

Zuzendariaren sinadura

Ikastetxeko zigilua

Bidali Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Informazio Atalera: eskatzailearen lanpostua non, lurralde horretako atalera.